

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Lopetegi Legorburu

*Lezo, Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Lezoko Burruntene baserrian jaio zen Manuel. Berak hamar urte bete zituen arte, han bizitu ziren. Handik Herriko-Etxe baserrira aldatu ziren; eta, orain, beste bi anai-arrebarekin bizi da bertan. Aita Burruntenekoa zen; eta ama, berriz, Herriko-Etxekoa. Aitak Pasai Antxoko portuan egiten zuen lan, baina ez beti, lana zegoenean baizik; bestela, baserrian aritzen zen. Ama esnea saltzera joaten zen goizero Antxora. Hamalau urtera arte, Errenteriako fraideetan ibili zen eskolan; eta, gero, baserrian aitarekin eta anaiekin batera. Baina Manuel urte askoan arotza izan zen Pasai-Donibaneko Clemente-Goldarazena aroztegian. Baxurako arrantzontziak egiten zituzten egurrez, hainbat herritako armadoreentzat; besteak beste, Donibane, San Pedro, Hondarribia eta Orikoentzat. Itsasontziak oso-osorik egurrez eraikitzen zituzten hasierako urteetan; gerora, material berriak erabiltzen hasi ziren; eta, Manuelek berrogei bat urte zituela, utzi egin zioten egurrezko itsasontziak egiteari. Aroztegian itsasontziekin lanean jarraitu zuten, konponketak egiten edota itsasontzi barruko frigorifikoak egiten, horiek egurrez egiten baitziren. Aroztegian aritu zen Manuel jubilatu arte, aldi berean baserriko lanari eutsiz: goizean, behiak jetzi ondoren joaten zen lanera, eta lanetik bueltan beti zituen baserrian eginbeharrak.

Zintak

LEZ-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2009-12-15
- **Iraupena:** 120 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

LEZ-066

- **Proiektua:** San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aizpiolea, Paula - Lopetegi, Olatz
- **Data:** 2016-03-14
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

Pasarteak

1. Eskolatik irten eta baserriko lanak egitera

- **Erref:** LEZ-016/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:22. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Hamar urte betetzerako Herrikoetxe baserrira etorri ziren bizitzera, amaren jaiotetxera. Eskolara joan eta gero baserrian lagundu behar izaten zuten. Artajorran ari, behiei jaten eman...</p>

2. Artoa eta babarruna

- **Erref:** LEZ-016/004
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Manuel haurra zela, artoa eta babarruna ezinbestekoak ziren. Artoa etxerako izaten zen. Hura irindu, eta taloak egiteko erabiltzen zuten. Babarruna ere etxerako izaten zen, baina zerbait sobratuz gero, saldu egiten zuten. Artoa Oiartzungo Txalaka errotan ehotzen zuten.</p>

3. Eskolara Erreteriarra

- **Erref:** LEZ-016/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:06:23. **Bukatu:** 00:08:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Erreterian eskolatu zen Manuel. Partikular batean lehenik, eta fraideekin gero. Baserritik Erreteriara oinez heltzeko ordu erdi pasatxo behar izaten zuen. Hamalau urte bete arte ibili zen eskolan.</p>

4. Ikasketen garrantzia

- **Erref:** LEZ-016/006
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gurasoek garrantzia ematen zieten ikasketei. Eskolara garaiz joan, handik zuzenean etorri, etxeko lanak egin eta ondoren gurasoei lagundu; horixe zen Manuelen eginbeharren ordena.</p>

5. Eskola utzi eta baserrian lanean

- **Erref:** LEZ-016/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Hamalau urterekin eskola utzi eta baserrian hasi zen lanean. Belarra ebaki ezik, baserriko gainontzeko lan guztiak egiten zituela esan daiteke, aita eta anaiekin batera.</p>

6. Jaiki eta ukuilura

- **Erref:** LEZ-016/008
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:16:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Goizeko seiak inguru jaikitzen ziren goizero. Behin behiei jaten eman eta ukuiluko lanak egindakoan, eguneko lehendabiziko otordua egiten zuten: kafesnea ogi edo taloarekin. Goizeko hamarrak aldera, gosalduta egiten zuten. Gehienez, haragia edo arraina.</p>

7. Eguerdiko lanak

- **Erref:** LEZ-016/009

- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:16:57. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Eguerdi aldera eteten zituzten etxe kanpoko lanak eta ukuilura itzuli ohi ziren behiei berriz ere jaten ematera. Astean bitan ateratzen zituzten behien azpiak, baina goizeko lehen lana izaten zen hori, hala egitea tokatzen zenetan, behintzat. Ordu bata aldera bazkaltzera bildu ohi ziren.</p>

8. Eguerditako otorduak

- **Erref:** LEZ-016/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Eltzekoa izaten zen gehien-gehienetan Herrikoetxeko eguerdiko otorduetan, eta ondoren, arraina haragia baino sarriagotan. Bazkalostean kuluxka egiten zuten beti, ordu laurden edo ordu erdikoa.</p>

9. Artoa eta babarruna

- **Erref:** LEZ-016/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:22:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Goizeko martxaren arabera izan ohi zuten arratsaldeko lana. Esaterako, goizez soroan gorotza zabaltzen bazuten, arratsaldean lurra jiratzera joango ziren. Artoa eta babarruna erein zein jorratzeari buruzko azalpenak ematen ditu Manuelek.</p>

10. Alperra eta area

- **Erref:** LEZ-016/012
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Alper-harriari "martimollua" ere esaten omen zioten. Bi are klase erabili ohi zituzten lurra maneatzeko. Are txikia goldea pasa berritan lur gaina goxatzeko erabiltzen omen zen. Are handia, aldiz, lurra arrotzeko erabiltzen zen.</p>

11. Artazuriketan

- **Erref:** LEZ-016/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:28:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Kanpoan lanean aritzeko hotz zen egunak aproposak izaten ziren artazuriketarako. Ganbaran egin ohi zuten lan hori, aurrez bildutako artoa bertan edukitzen baitzen.</p>

12. Kantu gutxi baina kontu asko

- **Erref:** LEZ-016/014
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak

Laburpena:

<p>Aitak ez omen zuen kantarako edo bertsoarako joerarik, baina mintzatzea gustuko zuen, eta hitz lauz ematen zien seme-alabei hainbat konturen berri.</p>

13. Erregeen erregaloak

- **Erref:** LEZ-016/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:33:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Ospatzen zituzten Gabon-gaua, Eguberri-eguna eta Urtezahar-gaua, baina erregalo kontutarako, errege eguna baliatzen zuten.</p>

14. Kantari egun eta gau

- **Erref:** LEZ-016/018
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:33:28. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Abenduaren 24ean, Gabon egunean, jende asko ibiltzen zen etxez etxe eta baserri baserri kantari. Goizez gaztetxoak azaltzen omen ziren, eta

gauetz, etxean familiarekin afaldu ostean, helduak. 'Dios te salbe' kantatzeko ohitura izaten zen, eta dirua ematen zitzaien.</p>

15. Bordatxoko sagardotegia

- **Erref:** LEZ-016/019
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Manuel lagunekin ateratzen hasi zenean, Bordatxoko sagardotegira joateko ohitura hartu zuten. Igande arratsaldetan joaten omen ziren, eta jende asko biltzen omen zen bertan. Sagardoa edaten zen aldiro ordaintzen zen, eta ohitura omen zen gertuan zegoen lagun taldea gonbidatzeko. Bertan eskaintzen ziren jakien artean bakailaoa omen zen nagusi, baina izaten omen zen besterik ere.</p>

16. Sagardoak egindako bertsolariak

- **Erref:** LEZ-016/020
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Berezko bertsolari gutxi sumatu izan du Manuelek Bordatxoko sagardotegian; sagardoak egindako bertsolariak, aldiz, gehiago. Sagardotegian ez omen zen bizilagunei traba egiteko edo "serenoa" azaltzeko arriskurik.</p>

17. Pasai Donibane herri kantaria

- **Erref:** LEZ-016/021
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:44:37. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Lezo inguruko herririk kantariena Pasai Donibane zen, Manuelen esanetan. Oso ongi kantatzen omen zuten, orokorrean. Eta tabernaren batean hasiz gero, jendeak arreta jartzen omen zien.</p>

18. Santa Krutzak eta Pazkoak

- **Erref:** LEZ-016/022
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:46:41. **Bukatu:** 00:49:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Santa Krutzak eta Pazkoak izaten dira Lezoko jai handiak. Gogoan du baserriko tresnak saltzen zituen gizon bat, eta baita orduko bertso saioak ere. Garaiko bertsolarien artetik 'Uztapide' bereizten du Manuelek.</p>

19. 'Basarri', 'Uztapide' eta 'Xalbador'

- **Erref:** LEZ-016/023
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:49:54. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Garaiko bertsolarien artetik 'Uztapide' bereizten du Manuelek. 'Xalbador'ri buruz galdetu eta haren hitza ulertzen kostatzen zitzaiola esaten du. Hala ere, ziur dago bertsolari ona izango zela hura ere, Euskal Herriko Txapelketan txapela jantzi zuenerako.</p>

20. 'Mattin Treku' bertsolaria

- **Erref:** LEZ-016/024
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>'Mattin Treku' Ahetzeko bertsolariarengatik galdetu eta bertsotan xelegarria hutsa zela dio. Haren pasadizo bat kontatzen du Manuelek, garaiko kontrabandoarekin lotura duena.</p>

21. Lezotik Donostiara hanka hutsik

- **Erref:** LEZ-016/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:55:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Manuelek ez du gogoan hanka hutsik ibili izana. Espartinekin ibiltzen ziren gehiengoa. Hala ere, amak kontatuta daki, haren aurrekoak Lezoko Alarguntza baserriko Donostiaraino hanka hutsik joanak izan zirela, xistera borobil handi bat buru gainean hartuta.</p>

22. Bide txarrak Lezon

- **Erref:** LEZ-016/026
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:55:08. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Manuelek dio Lezon oso bide txarrak izan direla orain ez asko arte.</p>

23. Oinetakoak

- **Erref:** LEZ-016/027
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:57:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Umetan, euria ari bazuen, abarkak jantziko zituzten; ateri bazen, apretak; eta jai egunetan, zapatak.</p>

24. Hogei urterekin arotz lanetan hasi

- **Erref:** LEZ-016/028
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:57:01. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Baserría » Baserríko lanak

Laburpena:

<p>Hogeí urterekin arotz lanetan hasi zen Manuel, Pasai Donibanen. Goizean goiz behiak jetzi, lanera joan, ilunabarrean etxeratu eta baserríko lanei berriro ekin. Hori izan zen Manuelen egunerokoa, urte askoz.</p>

25. Clemente Goldaracena ontziola

- **Erref:** LEZ-016/029
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:58:32. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Ontzigintzarako arotz lanak egin izan ditu beti Manuelek, Clemente Goldaracena ontzìolan. Zortzi urte inguru eman omen zituzten barku berriak egiten, eta ondoren, gehiago aritu omen ziren konponketak egiten.</p>

26. Itsasontziaren egitura

- **Erref:** LEZ-016/031
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:03:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Ontziolako nagusiak pinu-egurrarekin eta Eskalan egindako maketa bati begira egiten ziren barkuaren armazoi edo egiturak.</p>

27. Itsasontziaren egurra egosi

- **Erref:** LEZ-016/032
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:03:32. **Bukatu:** 01:07:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Itsasontziaren egituraren zenbait zati egiteko, egurrari kurba edo forma jakin bat eman behar izaten zitzaien. Horretarako, egurra uretan egosi egin behar izaten zen.</p>

28. Itsasontziaren egurra josi

- **Erref:** LEZ-016/033
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:07:28. **Bukatu:** 01:09:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Itsasontziaren egituraren zati kurbatuenak egiteko, egositako egurra zegokion toki eta forman josi behar izaten zen. Lan hori lauki formako iltzeekin egiten ikusi izan du beti Manuelek.</p>

29. Itsasontziaren antolaketa

- **Erref:** LEZ-016/034
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:09:57. **Bukatu:** 01:12:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Behin barkuaren egitura eginda, "entablazioa" egitea tokatu ohi zen, eta gero, barne antolaketa guztia.</p>

30. Itsasontzietako komunak

- **Erref:** LEZ-016/035
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:12:15. **Bukatu:** 01:13:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Manuelek komun eta guzti ezagutu ditu arrantza-ontzi guztiak, baina jakin badaki, hainbat arrantzalek esanda, lehen ez zela halakorik izaten.</p>

31. Arrantza-ontzien kolorea

- **Erref:** LEZ-016/037
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:16:30. **Bukatu:** 01:20:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Lehenik oloztatu egiten zen pintatu beharreko azalera. Flotazio marratik behera kolore gorritzat ilun batez pintatzen ziren barku guztiak, eta handik gora, armadorearen aginduen arabera kolorea erabiltzen zen. Hondarribirako, esaterako, sarritan pintatu izan zituzten berdez edo urdinez. Oriorako, aldiz, gorritzat pintatzen ziren asko. Zuriak eta beltzak ere ikusi izan ditu Manuelek, baina oso gutxitan.</p>

32. Itsasontzien uretaratzea

- **Erref:** LEZ-016/039
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:20:32. **Bukatu:** 01:23:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Egurrez egindako ontzia baldin bazen, motorra jarri baino lehen uretaratzen zen. Urik sartzen zitzaion frogatzen zen orduan, baina normalean ez omen zen arazorik izaten.</p>

33. Eskuko daratuluak eta zulatzeko makina

- **Erref:** LEZ-016/040
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:23:41. **Bukatu:** 01:25:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Zerra, marrusketa ("zepilloa"), zerrotea eta eskuko daratuluak ziren gehien erabiltzen ziren lan-tresnak. Hala ere, Manuel lanean hasi zenerako, eskuko daratuluak ("tatuluak") zultzeko makinak ordezkatu zituen.</p>

34. Bakailoa arrantzatzera txapazko ontzian

- **Erref:** LEZ-016/041
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 01:25:41. **Bukatu:** 01:26:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Manuel ontziolan lanean aritu zen garaian, txapazko ontziak joaten ziren bakailaotara. Egurrezkoak antxoatara eta atunetara ateratzen ziren, besteak beste.</p>

35. Lanik zailena

- **Erref:** LEZ-016/043
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:27:32. **Bukatu:** 01:28:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Ontzigintzan lan pisutsuak izaten ziren lanik zailenak.</p>

36. Konponketak

- **Erref:** LEZ-016/044
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:28:51. **Bukatu:** 01:31:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Ontzi berri gehiago egiteko demandarik ez zen garaia iritsi zenean beste lan batzuetan hasi behar izan zuten ontziolan. Esate baterako, konponketak eta txapazko ontzien osagaiak egiten hasi ziren.</p>

37. Arraina ongarritarako

- **Erref:** LEZ-016/049
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:37:20. **Bukatu:** 01:40:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak

Laburpena:

<p>Manuelek dio garai batean asko arrantzatzen zela, eta flota handia zegoela Pasaian eta inguruetan, eta saldu ezin zen arrain guztia baserritarrek barreiatzen zutela zelaietan, ongarri moduan. Berrogeita hamar urteren bueltan, egoera erabat aldatu zen.</p>

38. Baserriko esnea eta kolesterola

- **Erref:** LEZ-016/050
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 01:40:34. **Bukatu:** 01:44:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Lehen esne asko saltzen zuten kalera Manuelek-eta. Garai batetik hona, ordea, jendeak baserriko esnari uko egin ziola dio Manuelek. Eta bera harritu egiten da orain, baserriko esnea saltzen duten makinak bogan daudelako, herriko plazetan.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com